

**GANBARATIK**

**Optimiza gaitzen!**

KOLDO GOITIA

Txikitatik izan dut halako *moda* psikiko defingaitza, hamar liburu idatzi ondoren ere erabat argitu gabe geratuko litzatekeen fobia bat, fobia akademikoa, alegia. Madarikazio honen ezaugarri nagusia hau da: ezin dut ezer ikasi, ikasi beharrekoa era akademikoan antolatutik badago. Ezin dut maisuak jasan, testu liburuak piromano bihurtzen naute eta eskola, ai zein gustora dinamitatuko nuen eskola nire haurtzaroan!

Matematikak urte batean bai eta hurrengoan ere bai irailerako geratzen ziren, geografiako ikastorduetan Suitzako lautadetatik galtzen nintzen eta historiar, berriz, izugarrikoak egiten nituen: Napoleon III Kleopatra-rekin ezkondu, bikingoak Kongo konkistatzea bidali... Hiru hilabetan ingelesez hitz egiteko ikastaroa hasi nuen eta hirugarren urtean hiru mende beharko nituela ohartu nintzen. Autoeskolan sartu eta arrakastaz arrakasta ibili ondoren, azterketaren egunean furgoneta baten atzealdea birrindu nuen.

Baina aste honetan topatu dut azkenik gustatzen zaidan ikastaroa: 'Baliabide pertsonalen optimizazioaz autopromoziorantz' omen da ikastaroaren izena. Gauza asko ikasten dugu eta ariketa praktikoi anitz daude: bulego-alpinismoa, labana jaurtiketa bizkarrera, komisioen gestio diskrezionala, oratoria zuriketa, gimnasia faziala, kaleko karterismoa eta karterismo ministeriala... Miraria badirudi ere, behingoz ikastaro atsegina eta etorkizun handikoa egiten ari naiz.

**Nati Etxaniz: «Herri baten aurkako zigor ekintza izan zen Gernikaren bonbardaketa»**

J.M. ZILUAGA / GERNIKA

Gaur 57 urte gertutik bizi izan zuten Euskal Herriak Condor Legioak Gernikako herriaren aurka burututako sarraskia. Nati Etxanizek hamahiru urte zituen sasoi hartan eta bere azalean pairatu zuen alemanen bonbardaketa. Nekez ahaztuko du egun triste hura: «Lagunekin nenbilen jolasean eta Antonio Onaindia, ertzaina, motorrez etorri eta Azkaretako zubi azpira sartu gintuen. Han egon ginen ezkutatuta bonbardaketak irauin zuen bitartean. Guk, inuxente, dena amaitu eta zazpietako zinemara joateko asmoa genuen».

Arratsaldeko lauretan hasi zen eraso iluntzeko zortzirak inguruan amaitu zen. «Oiz menditik zetozen abioiak, hirunaka, eta kostaldean ematen zuten buelta. Lerro bat desageratu orduko hiru abioiz osatutako beste bat agertzen zen, bonbak ete-nik gabe jaurtiz. Piloto haien amorrua hain handia zen, bonbak gordezko kutxak ere jaurti egiten zizkigutela». Hasierako 50 eta 100 kiloko trilitazko bonbak suemaile gertatu ziren azkenean eta 2.000-3.000 graduko tenperaturen sorrerazle. «Gernika bonbardatu eta erre aren, ez ziren nonbait konforme geratu eta kalean edo bideetatik ihesari zebilen jendea metrailatu egin zuten», diosku Nati.

Panorama hark beldurrezko edozein filmeren gidoia gainditzen zuen. «Ezin sinestuta genbiltzan. 'Zergatik hau? Zer pasa da?' eta halakoak esanda. Kalean jendea noraezean zebilen, batetik bestera korrika. Behereganen hainbat pertsona hilda eta tartean astoak eta behiak ere. Gernikako etxeak sutan».

Espainiako historia ofizialak ez



IÑAKI ETXANIZ

**SOSLAIA**

**Gizatasuna**

**H**an eta hemen ibili da bonbardaketaren lekukotasuna eramaten. Behin, telebistako saio batean, Francoren alde egon ziren gernikarrez berbetan hasi zen: «Min handia egin zuten. Euren salatuta herritar asko fusilatuta hil zen». Saioa zuzenean emititzen zen eta jende asko telebistara deika hasi zen: batzuek izenak publikoki esateko eta beste batzuek, ordea, mesedez isiltzeko eskatuz. Ez zen, baina, izenik irten Natiren ahotik, «seme-alabek ez dutelako gurasoek egindakoaz inolako eruririk». Ikusitakoak ikusita ere, ez dario gorrotorik; indarra eta maitsuna debalde eskaintzen dituztenetakoa dugu Nati. Bere etxean beste ama bat dugun sentsazioarekin abiatu gara kalera.


du sekula bonbardaketaren erantzukizuna onartu. Egun ere Espainiako Armadaren esku omen dauden artxiboen dokumentazioa sekretupean dago; ez, ordea, Natiren lekukotasuna. «Gernika helburu militarra zela ziota, baina armen lantegiak ez zuten inolako kalterik jaso. Inoiz esan zuten Erreteriko zubia suntsitu nahi zutela, baina hark ere apenas zuten ikuteren bat. Hor ageri da erasoaren bidegabekeria. Argi dago herri baten aurkako zigor ekintza zela».

Castor Arrienek 'Bombas y mentiras sobre Gernika' liburuan 250 hildakoren kopurua ematen badu ere, ezin izan da frogatu. «Santa Mariako babestokian 45 pertsona hil ziren bonba batek bete-betean harrapatuta. Gogoratzen dut, hildakoak gurdi batean, bata bestearen gainean ipini eta apropos egindako zulo batera eramane eta jaurti zituztela».

Bonbardaketa izan eta handik bi egunera Francoren armada sartu zen herrira. Bizimodu gogorra eta gogosearen garaia heldu ziren. «Bildur handia bazegoen ere, italiar, alemaniar eta moroen artean moldatu behar izan genuen. Euren jantziak garbitzen ibiltzen ginen. Euskaraz ere ezin genuen barbarik egin, jo egiten gintuzten bestela eta. Arnasa hartzeko ere permisoa eskatu beharra zegoen. 'Nork erre du Gernika?' galdetzen zigutenean, 'gorriak' erantzun behar izaten genien. Geure oroimena ere lapurtu nahi ziguten. Guk geure begiekin ikusitakoa isildu eta ukatu egin behar!».

Gogoratzea ere debekatuta egon aren, atzo bizi izandakoaren gogoz eta indarrez mintzatzen zaigu Nati. «Ahaztu egin behar dela dioste sarritan, baina nola ahaztu hango tragedia! Ez, ezin dut!».

**LERRO GUTXITAN**



© Jon Zabaleta

**GAUR ZORTZI URTE BETEKO DIRA TXERNOBILGO** ez-behara izan zela, inoiz zentral nuklear batean izandako larriena. Espainiako Elkarte Nuklearrak ezagututako emandako ikerketaren arabera, datozen 60 urteotan Europako Batasuneko herrialdeetan 20.000 minbizi-gaixo eraginen ditu erradioaktibitateak. Greenpeacek, berriz, Txernobilen beste hondamendi bat izan daitekeela ohartarazi zuen, «martxan diren erreaktoreek ez dituztelako nazioarteko segurtasun arauak betetzen». Datuak asaldagarriak dira: erabat kutsatuta dauden 131 kilometroko erradioen bost milioi lagun bizi dira.

**LANGRAIZKO KARTZELATIK IHES EGIN** zuen atzo S.A.P. izeneko presoak, Arabako presondegiko hormatzarrak eta hesia saltatu ondoren, baina zenbait minuturen buruan inguruetan harrapatu zuten. Presoa, lehen gradukoak, Calahorran (Rioja) jaio zen orain dela 24 urte. Goizeko 11.30ak aldera lortu zuen ihes egitea eta Goardia Zibilak 12.00ak inguruan harrapatu zuen. Nolanahi ere, Gobernu Zibilak ez zuen ihesaren gaineko xehetasunik eman.

**EZKONGABE eta ADIN TXIKIKOEN** seme-alabak dira preso sozialen % 50 eta baita prostituten % 50 ere. «Hori dela eta, Espainiako Parlamentuak premiazkoa du adin txikikoaren auzia ikertzea», esan zuen atzo Madrilen PPKo Maria Bernarda Barriosek. 25.000 adin txikiko geratzen dira haurdun urtero Espainian, horietatik erdiak gogoz kontra, eta horren arabera, hamar bat mila abortu izaten dira.

**HAMAIIKA HILABETEKO** alaba atari batean abandonatu zuen emakumea absolutu egin zuen atzo Nafarroako Probintzia Entzute-giko epaileak. Haurra utzi aurretik, etxe hartan jendea zegoela «ziurtatu» izana kontuan hartu du epaileak.

**'Emakumeak eta Osasuna EAEn'**

Emakundek landutako 'Emakumeak eta Osasuna EAEn' txostenak erakusten duenez, emakumeen % 41 ez dira medikuarengana joaten ohiko osasun arazoak dituenen; dena delako arazo horrek medikuarentzat garrantzirik ez duela izango pentsatzen omen dute emakumeok eta hori da medikuarengana ez joateko arrazoi nagusia.

**ONCE**

ASTELEHENA  
**46.329**

ASTEARTEA  
ASTEAZKENA  
OSTEGUNA  
OSTIRALA **KUPOITZARRA**